

# Identitate Soziala nabarmentzearen eragina Esklusio Moralean

Luixa Reizabal, Jose Valencia  
EHUko irakasleak

Identitate Sozialari buruzko ikuspegi psikosoziala (Tajfel 1981, 1982) eta taldearteko gatazkari buruzko teoria (Sherif 1966; Doise 1986; Deutsch 1986) tartekatuz, identitate gatazkatsuekiko taldekidetza eta identitatearen nabarmentze kontestualari (indibiduala vs. soziala) buruzko arazoak eztabaidatzen dira artikulu honetan. Hain zuzen ere, ikuspegi hauetan oinarrituz, testuinguru gatazkatsu batean identitate ezberdinak nabarmentzearen eta bestearen ebaluaketaren artean dauden zenbait prozesu soziokognitibo hipotetiko planteatzen dira.

Honela, 2 x 2-ko (Identitate eskusibo euskalduna eta espainiarra x identitate indibiduala vs. soziala nabarmentzea) diseinu bat eta balio ezberdintasunari, deslegitimizazioari, hautemandako gatazkari eta bestearen ebaluaketari buruzko neurbideak erabiliz, Euskal Herrian garatzen den gatazka soziopolitikoaren inguruan burututako ikerketa baten emaitzak aurkezten dira.

Combining Social Identity's psychosocial approach (Tajfel 1981, 1982) and the Intergroup Conflict theory (Sherif 1966; Doise 1986; Deutsch 1986), we examine problems about conflicting group membership and contextual identity outstanding (individual vs. social). Basing in these approaches, we establish some hypothetic sociocognitive process that mediate between the contextual outstanding of different identities and other's evaluation in conflicting contexts.

Thus, using a 2 x 2 design (Basque/Spanish identity and social vs. individual identity salience), the perceived value difference, the delegitimization, the perceived conflict and other's evaluation as measures, we present the data from a research developed in the context of the sociopolitical conflict in the Basque Country.

## Sarrera

Jarraian aurkezten dugun lana, identitate sozialari buruzko (Tajfel 1978) ikuspegi psikosozialetik abiatzen da eta Euskadin garatzen den gatazka soziopolitikoari hurbilketzeko saio bat da. Ikuspegi honen arabera, gizabanakoaren portaerak ezberdinak dira gizabanako moduan edo talde bateko partaide bezala jokatzeko duenean. Ezberdintasun hauek taldekidetzarekin lotura duten zenbait prozesu psikosozial egotz diezazkiokegu.

Identitate sozialari buruzko teoriaren oinarriko suposizioak dioenez, subjektuok gure ingurunea eta geure burua talde edo gizarte-kategorietan sailkatzeko joera dugu. Kategoria edo talde batzuekiko taldekidetzaren ezagutzatik eratortzen den subjektuaren autokontzeptuaren zatia, taldekidetza honek subjektuarentzat duen esanahi baloratzailerik eta hunkiberazkoarekin batera, subjektuaren identitate soziala litzateke (Tajfel 1972).

Identitate sozialari buruz Tajfel-ek zera dio: honek *continuum* delako baten bi buruei dagozkien bi mutur teoriko dituela. Mutur hauetariko batean, gizabanako bakoitzaren ezaugarriez eta bere burua beste batzuenarekin gonbaratuz eraikitako identitate indibiduala legoke. Beste muturrean, norberaren taldeko taldekidetzarekin lotura duten autodeskribaketak eta endotaldea talde ezberdinekin gonbaratuz eraikitako identitate soziala aurkituko liriteke. Edozein giza harremanetan hauetako mutur bat nagusitzen da eta, honen ondorioz, jokabidea horren menpe gelditzen da. Honela, bi portaera-mota aurki ditzakegu:

a) *Jokabide indibiduala*: Identitate pertsonala gure jokabidearen gidari bilakatzen denean, elkarrekintza guztia bi subjektuen arteko harremanek eta subjektuen ezaugarri pertsonalek mugaturik dago. Kasu honetan harremanak ez du taldekidetzaren eraginik izango. Nahiz eta harremana gatazka-tsua izan, judizioetan, talde ezberdinekiko taldekidetzak nahasten direnez, irudi estereotipatuak ez dira hain nabarmenki ematen.

b) *Jokabide soziala*: Subjektuak bere burua eta berarekin harremanetan dagoen pertsona –“bestea”– talde baten ordezkarietatik –eta ez banakotzat– hautematen dituenean, berriz, taldearteko jokabidea dugu (Tajfel eta Turner 1979). Taldearteko jokabidea, partekaturiko identifikazio sozialen menpe dago; hau agertzen denean, estereotipuriko pertzepzioak eta jokabideak ematen dira eta estereotipoak nabarmenki ematen direla esan daiteke (Turner 1982, 1984).

Frogatu da geure buruaren eta beste pertsonekin pertzepzioan taldekidetzak eragin handiagoa duela testuinguru batzuetan beste batzuetan baino (Bruner eta Pelmuter 1957; Dion 1975; Dion eta Earn 1975; Doise eta Weinberger 1973; Sherif 1966). Hau, batez ere, taldearteko gatazka edo/eta diskriminazioa ematen direnean gertatzen da. Honela, zenbait egoerak hauetariko identitate baten nagusitasuna bizkortzeko joera du, eta honek zenbait ondorio izango du.

Estimulu-multzoko bat –pertsonak barne– kategorizatzean, baldin eta kategorizazio hau estimuluak dimentsio fisiko baten barruan zuen lekuarekin erlazionaturik badago, prozesu bikoitzak ematen da: alde batetik *kategorien*

*arteko diferentziazioa* edo kategoria ezberdinak osatzen dituzten kideen arteko ezberdintasunen areagotzea, eta bestetik, kategoria osatzen duten elementuen arteko berdintasunak areagotzeko joera edo *taldebarneko homogenizazioa* (Tajfel 1978, 1981; Forgas 1981). Prozesu honek taldearteko diskriminazioa eta taldebarneko faboritismoa ere barneratzen ditu (Richardson eta Cialdini 1981; Tajfel 1978, 1981, 1982; Turner 1987) eta honen ondorio bezala estereotipo sozialak ere suerta daitezke: gizabanako orok bere buruaren irudi positiboa behar du, eta honela, bere portaera hau lortzera zuzenduko du. Talde batekiko identifikazioa ematen denean, irudi positiboaren beharra norberaren taldea besteekin gonbaratuz hobetzat hartzean isladatzen da. Gogoramen baikor honek gonbaraketa dimentsio egokietan norberaren taldea besteena baino "hobea" dela dioen ikuspegia behar du (Tajfel 1978).

Arestian aipatu dugun kategoriarteko desberdintzapen-prozesuak ondorio negatiboak izan ditzake Euskal Herrian ematen den gatazka-egoera bezalako prozesuetan. Honetan, lehiari dabil-tzan taldeek, gatazka, irabazteko ala galtzeko borroka balitz bezala hautematen dute, hau da, gatazkak norgehiagokako joera du eta, hori dela medio, gatazka suntsitzaila bihurtzen da (Deutsch 1986). Honen ondorioz, gatazka luzarazten eta areagotzen duen prozesu soziala indartzen da: lankidetzari eragozten duten distorsio kognitiboak ematen dira (Doise 1976; Blake eta Mouton 1979) eta komunikazioa pobretu egiten da. Oinarritzko uste eta baloreen mailan ezberdintasuna hautematen da. Honela bestearen irudi estereotipatua ematen da, bestea norberaren interesentzat mehatxu bilakatzen delarik.

Gatazka garatzen den neurrian, bi taldeen arteko komunikazioa bihurtu eta urritu egiten da (Raven eta Rubin 1976); taldearen barne-kohesioa, *gu* eta *bestea*-ren arteko mugak eta hautemandako gatazka areagotu egiten dira. Honela, bestearenganako etsai-jarrera garatzen da eta exotaldearen ezberdintasunekiko sentiberatasuna areagotu, bi taldeen arteko berdintasunei inongo garrantzirik eman gabe. Exotaldearen irudi estereotipatu negatiboa ematen da eta elkarrekintza gatazkatsuak elkarrelikatzen dira, hautemandako gatazkaren maila areagotuz eta taldearteko harremana etsai-harreman bilakatuz. Honela, gatazkaren irtenbide bakarra talde baten nahien inposaketan datzala hautematen da. Honen guztiaren ondorioz, harreman gatazkatsuen elkarrelikatzea eta gatazka-mailaren areagotzea ematen dira (Deutsch eta Shichman 1986); taldearteko justiziari buruzko interesa ahuldu egiten da eta justiziaren mugak—edo pertsonaren elkarte moralaren muga psikologikoak—murrizten dira (Opatow 1990). Honek guztiak eskusio morala (Tajfel eta Wilkes 1963) ekar dezake. Fenomeno hau, gizabanakoak beren balio moralen, arauen eta justiziaren aplikazio mugetatik kanpo hautematen direnean suertatzen da. Moralki eskluitzen diren subjektu edo taldeak, ez baleude bezala hautematen dira; beraz, hauen aurkako edozein ekintza zilegi da (Tajfel 1981; Wilder 1986). Gure ikerketan eskusio morala aurriritzi eta estereotipoen ikuspuntutik aztertu dugu, eskusio moralaren honako bi adierazle hauek kontuan hartuz: hautemandako balore-distantzia eta deslegitimizazioa.

a) *Hautemandako Balore-Distantzia*: Baloreak, jendearen helburu indibidual zein sozialen, eta hauek lortzeko onar-

tzen diren jokabideen adierazgarri dira (Kluckhohn 1951; Rokeach 1973; Schwartz eta Bilsky 1987). Jendeak neurri batean norberaren eta besteen jokabidea ebaluatzeko erabiltzen dituen eta finkoak diren irizpideak lirakeke, eta jarrera eta arauen oinarri gisa har daitezke (Rokeach 1973). Jendeak, desiragarri eta onargarriak iruditzen zaizkion helburu eta jokabideen bitartez bere gizatasuna adierazten du. Honen ondorioz, hautemalarentzat taldeen balore-hierarkiek talde horietako subjektuen gizatasunari buruzko ikuspuntua adierazten dute (Schwartz eta Struch 1989). Gure taldeko subjektuek, gure gizatasun-maila bera dutenez, guk merezi dugun tratu gizakor berbera merezi dute. Exotaldearen baloreak eta gure baloreak ezberdinak direla pentsa dezakegu eta kasu honetan, bere oinarriko xedeak gureekin bat ez datozenez, eskusio morala ematen da, eta exotaldeko partaideek gizatasunik ez dutela hautematen dugu. Honek, beraien aurkako motibazio sozialak sortzen ditu gure baitan (Berkovitz 1962; Sherif eta Sherif 1953). Horrela, exotaldearen partaideak gizatasunik gabeko bezala hautematen dira. *Outgroup*-aren estereotipo deshumanizatzaile honek beraien aurkako ekintzak justifikatzen ditu (Tajfel 1981; Wilder 1986).

b) *Deslegitimizazioa*: Talde zein subjektuak oso kategoriatan negatiboetan sailkatzen dituen estereotipazio-mota da. Honen ondorioz, deslegitimizaturiko subjektu zein taldeak balio edo arau onargarrietatik at gelditzen dira (Bar-Tal 1990). Hori dela medio, eskusio morala errazten du. Deslegitimizazioa taldeen helburuen arteko elkarrezinetik sortzen da (Bar-Tal 1990). Orduan taldeak deslegitimizazioa erabiltzen du gatazka azaldu eta bestearen aurka burutu daitezkeen agresioak justifika-

tzeko. Kasu hauetan, deslegitimizazioak, besteari buruz hautemandako ezaugarrientzat eta portaerarentzat azalpena eskainiz, eta geroan gerta daitezkeen ekintzak auresateko aukera emanez, errealitatea antolatzen duela esan dezakegu. Behin deslegitimizazioa erabiliz gero, deslegitimizaturiko taldea *agresiboa*, *krudela* edo *zapaltzailea* bezalako etiketen bidez izendatzen da. Etiketa hauek exotaldea biolentzia erabiltzeko gai dela adierazten dute eta honek, zalantzarik gabe, endotaldearen segurtasuna arriskuan jartzen du. Deslegitimizazio bideen artean, honako hauek aurkituko lirakeke (Bar Tal 1990):

i) Aipaturiko deshumanizazioa: honek talde bati gizatiarrak ez diren zenbait izakiren edo gaizki ikusiak dauden gizakien ezaugarriak egozteko suposatzen du. Deslegitimizazio-bide hau, bestea aipaturiko izakien izenez izendatzearekin isladatzen da: *deabrua*, *mamuak*, *txakurrak*... Bi kasuetan, deslegitimizaturiko taldeak izaki hauen ezaugarriak dituela suposatzen da.


ii) Berezitasunen ezaugarritzea: "etsaia" onargarriak ez diren zenbait ezaugarriren bidez izendatzen da, hala nola *hiltzaileak*, *agresiboak*...

iii) Bazterketa: besteak arau sozialak betetzen ez dituzten izakien izenen bidez izendatuz: *lapurrak*, *eroak*...

iv) Etiketa politikoak erabiliz: *faxis-tak*... Deslegitimizazio-mota honekin, bestea oinarriko baloreak arriskuan jarriko balitu bezala deskribatzen da. Askotan, talde hauek deslegitimizatzen duten gizartearen baloreak arriskuan jartzen dituzte eta gizarte hauen ongizatearen aurkako mehatxu kontsideratzen dira.

v) Taldearteko konparaketa, gaizkile-eredu bezala diren izenak erabiliz. Hauek kultura batetik bestera aldatzen dira; gure kulturaren, adibidez, *banda-loak*, *basatiak*...

Laburbilduz, esan dezakegu lan honetan Euskal Herrian bizi diren taldeen pertzepzioak eta ebaluaketak aztertzeko, Identitate Sozialaren teoria (Tajfel 1978, 1982 eta 1984) eta Taldearteko Gatazkaren teoriak (Doise 1986; Sherif 1966; Deutsch 1986) egindako ekarpenak tartekatu ditugula. Honela, identitate soziala nabarmentzen eta hautemandako gatazka, eskusio morala eta bestearen ebaluaketa aldagaien arteko harremana aztertzen saiatu gara, horretarako 1. irudian agertzen diren prozesu hipotetikoak planteatuz.



### Hipotesiak:

\* Identitate soziala vs. indibiduala nabarmentzeak bestearen ebaluaketa eta pertzepzioetan ondorioak izango ditu.

\* Identitate soziala nabarmentzeak hautemandako gatazka, hautemandako balore-ezberdintasuna, deslegitimazioa eta bestearen ebaluaketa negatiboa areagotuko ditu.

\* Taldekidetzeta eta hau nabarmentzearen arteko elkarrekintzak ere hautemandako gatazka, hautemandako balore-ezberdintasuna, deslegitimiza-

zioa eta bestearen ebaluaketa negatiboa areagotuko ditu.

\* Identitate soziala nabarmentzeak eta hautemandako gatazkak, eragin zuzena zein zeharkakoa izango dute bestearen ebaluaketa negatiboan deslegitimazioa eta hautemandako balore-diferentziaren bitartez.

### Metodologia:

\* Lagina:

Euskal Herriko hegoaldean "ruta" delako sistemaren bidez burututako laginketa estratifikatutik abiatuz, laginak honako ezaugarri hauek izan zituen: 14 urtetik 78 urterako (batez bestekoa, 32 urte) 386 subjektuz osaturik zegoen; hauetariko 196 emakumezkoak ziren. 40 Araban bizi ziren, Gipuzkoan 102, Nafarroan 75 eta Bizkaian 166. Hiru lagunek ez zuten adierazi zein probintzian bizi ziren. Lan-egoerari buruz, 62 langabetuak ziren, 67 eskulan zuzeneko langileak, 122 ikasleak (erdiak unibertsitarioak eta beste erdiak UBI eta BBBkoak), 33 jubilatutak, 34 etxeakoandreak eta 68 funtzionarioak.

\* Aldagaien neurketa:

Galdesorta, aldagai soziodemografikoez gain, honako aldagai hauek osatzen zuten:

a) Hautemandako balore-ezberdintasuna: Bestearen balore-hierarkiari buruz hautemandako ezberdintasuna aztertzeko, lehenik eta behin subjektuen balore-hierarkia aztertu behar izan genuen. Horretarako, galdesortaren hasieran Rokeach-en (1968) balore-zerrendan oinarrituriko eta hamabi balorez osaturiko zerrenda aurkeztu genien. Subjektuei balore hauek bere bizitzarako gida bezala zuten garrantziaren arabera ordena zitatela eskatu genien (garrantzi

handiena zuenari *bat* puntuazioa, bigarrenari *bi* puntuazioa... honela hamabigarreneraino iritsi arte). Zerrenda honako balore hauek osatzen zuten: *benetako adiskidetasuna, maitasun heldua, zoriona, berdintasuna, askatasuna, mundu garbia, mundua bakean, gozamina, giza errealizazioa, begirunea, salbazioa eta nazio-segurtasuna*.

b) Identitate ezberdinak nabarmentzeko manipulazioa (identitate soziala/indibiduala): identitatearen nabarmentze kontestualaren eragina aztertzeko, subjektuei bi motatako galdesortak banatu genizkien, banaketa zoriaren esku utziz: 196 subjekturi identitate indibiduala azpimarratzen zuen galdesorta eman genien, zeinean subjektuei istilu handia zuen pertsona batengan pentsatzeko eta pertsona hori nor zen adierazteko eskatzen genien. Besteei, ordea, identitate soziala azpimarratzen zuen galdesorta banatu genien, honako hau eskatuz: «Saia zaitez talde bat gogoratzen zeinekin euskaldun bezala istilu handiak dituzun».

c) Hautemandako gatazka: hautemandako gatazka-maila neurtzeko, lehen aipaturiko talde zein pertsonarekin hautematen zuten gatazka-maila, batetik hamarrerako puntuazioa hartzen zuen Likert eskalan adierazteko eskatu genien.

d) Esklusio morala: esklusio moralari dagokionez, esan bezala, bi erataraztertu genuen:

d.I) *Hautemandako balore-ezberdintasuna*: Norberaren baloreak aztertzeko erabili genuen balore-zerrenda berriz ere aurkeztu genien, oraingoan lehen aukeratutako pertsona edo talde horrentzat bere bizitzaren gida-printzi-

pio gisa izango luketen garrantziaren arabera ordenatzeko eskatuz. Erantzun bakoitzerako, endotalde eta exotaldeari egotzitako balore-hierarkien arteko koerlazioak (Spearman-en Rho-a) eman zigun balore-ezberdintasunaren indizea.

d.II) *Deslegitimizazioa*: aldagai hau aztertzeko, subjektuei Bar-Talek azaldutako bost deslegitimizazio-bideak adierazten zituzten zenbait etiketa kontrajarri genizkien, batetik zazpirako Likert eskalaren bidez besteak ezaugarri horiek zer mailataraino zituen adierazteko (adibidez: Animalia 1 2 3 4 5 6 7 Gizakia»). Etiketak hauek ziren: *animalia/gizakia, zoroa/orekatua, hiltzailea/ /zintzoa, faxista/askatasunaren aldeko gudaria eta basatia/ /ondo hezia*. Eskala honen Alpha Cronbach koefizientea 0.89koa izan zen.

e) Bestearen ebaluaketa: Bestearen ebaluaketa aztertzeko subjektuei hogei izenlagunez –hamar positibo (Alpha=.87) eta hamar negatibo (Alpha=.82)– osaturiko zerrenda (Frank 1982) aurkeztu genien, batetik hamarrera hartzen zuen eskala batean “beste”ak ezaugarri horiek zer mailataraino zituen adieraz zezaten. Zerrenda, honako izenlagunek osatzen zuten: *agresiboa, krudela, prestua, demokraziazailea, deabruzkoa, espantsiozailea, baldarra, adiskidetsua, langilea, justua, arriskutsua, jatorra, garbia, abertzalea, boterezalea, argia, susmagarria, traidorea, fidagarria eta gerrazalea*.

f) Identitate soziala: Identitate soziala aztertzeko, subjektuei batetik zortzira hartzen zuen eskalan euskaldun eta espainiar noraino sentitzen ziren adierazteko eskatu genien. Ondoren taldekidetzara horiek beren bizitzan zu-

ten garrantzia batetik laura puntuatuz adierazteko ere eskatu genien (1= ez da batere garrantzitsua, 2= maila txiki batean garrantzitsua, 3= nahikoa garrantzitsua eta 4= oso garrantzitsua). Bi puntuazio hauek elkarren artean biderkatuz eta biderkaketaren emaitzak taldeen medianekin zatituz, lau identitate-mota lortu genituen:

a) Identitate inklusiboa –identitate euskaldun zein espainiarrean puntuazio garaia (N=27)–.

b) Identitate eskusibo espainiarra –identitate euskalduneari baxua eta espainiarrean garaia (N=62)–.

c) Identitate eskusibo euskalduna –identitate espainiarrean baxua eta euskalduneari baxua (N=164)–.

d) Bi identitateetan puntuazio baxua (N=66)–.

Gure ikerketarako identitate gatazkatsuek erabili genituen, b) eta c) identitateak hain zuzen.

### *Emaitzak:*

1.- *Identitate indibiduala vs. sozialaren manipulazioaren eragina:* Identitate indibiduala vs. soziala azpimarratzeak bestearen pertzepzio eta ebaluaketan eragina izango duela aurreikusten duen gure hipotesia egiaztatzeko, Manova motako bi analisi estatistiko burutu genituen.

1.a.- Taldekidetza eta bestearen ebaluaketa: Lehenengo analisisan, aldagai aske bezala taldekidetza hartu genuen eta menpeko aldagaitzat hautemandako gatazka, hautemandako balore-diferentzia, deslegitimazioa eta bestearen irudia. Analisi honen ondorioz ez genuen taldekidetzaren


araberako eraginik aurkitu (Pillais  $F_{(1, 205)} = 1.64$ ;  $p = .089$ ). Hori dela eta, taldekidetzak berez ez duela bestearen ebaluaketan eraginik esan dezakegu.

1.b.- Identitate soziala nabarmentzearen eragina bestearen ebaluaketan: Bigarren analisisa aldagai aske bezala identitate sozialaren nabarmentzea erabiliz burutu genuen, eta honek eragin orokor anizkoitza eta esanguratsua eman zigun (Pillais  $F_{(1, 271)} = 3.15$ ;  $p = .000$ ). Honen ondorioz esan dezakegu identitate soziala nabarmentzearen bidez egindako egoeraren kontestualizazioak bestearen pertzepzio eta ebaluaketan eragin negatiboa duela.

2.- *Identitate Soziala nabarmentzearen eta taldekidetzaren arteko elkarrekintza eta bestearen ebaluaketa:* Ondoren, identitate soziala nabarmentzearen eta taldekidetzaren arteko elkarrekintzak ere hautemandako gatazka, eskusio morala eta bestearen ebaluaketa negatiboa areagotuko dituela dioen gure hipotesia egiaztatzeko, berriro ere Manova motako analisisa burutu genuen, aldagai asketzat aipaturiko elkarrekintza hartuz. Emaitzek gure hipotesia egiaztatu zuten, elkarrekintzaren eragin orokorra esanguratsua izan baitzen (Pillais  $F_{(2, 205)} = 1.65$ ;  $p = .026$ ).

2.a.- Taldekidetza eta identitate sozialaren arteko elkarrekintza eta hautemandako gatazka: Arestian aipaturiko elkarrekintzaren eragina hautemandako gatazkan esanguratsua izan zen (Pillais  $F_{(2, 205)} = 11.43$ ;  $p = .000$ ). Batezbestekoetan arreta jartzen badugu, ikusten dugu bi kasuetan hautemandako gatazka identitate soziala nabarmentzearekin areagotzen dela.





2.b.- Taldekidetza eta identitate soziala nabarmentzearen arteko elkarrekintza eta hautemandako balore-diferentzia: Arestian aipaturiko elkarrekintzak hautemandako balore-diferentzian duen eraginari buruzko emaitzek adierazi ziguten elkarrekintzaren eragina kasu honetan ere esanguratsua dela (Pillais  $F_{(2, 221)} = 11.43$ ;  $p = .031$ ), hots, bi taldeetako subjektuek balore-distantzia maila handiagoa hautematen dutela identitate soziala azpimarratzen zaienean.

### 1. Taula

	TALDEKIDETZA			
	EUSKALDUNA		ESPAINIARRA	
Balore diferentzia	I.SOZ.	I.IND.	I.SOZ.	I.IND.
	-.44	-.17	-.09	0.23

2.c.- Taldekidetza eta identitate soziala nabarmentzearen arteko elkarrekintza eta deslegitimazioa: Esklusio morala neurtzeko erabili genuen bigarren aldagaiari dagokionez, batezbestekoak begiratzen baditugu, ikusiko dugu bi taldeetan identitate soziala nabarmentzeak deslegitimazioa areagotzen duela, elkarrekintzaren eragina esanguratsua izanik ( $F_{(2, 221)} = 5.15$ ;  $p = .000$ ).

### 2. Taula

	TALDEKIDETZA				
	EUSKALDUNA		ESPAINIARRA		
	I.SOZ.	I.IND.	I.SOZ.	I.IND.	
Animalia	3.89	2.66	3.32	2.92	.012
Hiltzailea	4.17	2.97	3.84	2.52	.000
Zorua	3.91	3.86	3.76	3.68	.819
Faxista	4.69	3.57	3.80	3.20	.003
Basatia	4.15	3.15	3.80	3.20	.000

Batezbestekorik altuenak lortu dituzten etiketei dagokienez, ikus daitekeen bezala, identitate eskusibo euskaldunekoek identitate soziala azpimarratu zaienean maila garaienean erabili duten etiketa *faxista* izan da –honek besteak norberaren baloreak mehatxatzen dituela adierazten du (Bar-Tal, 1990)–. Identitate indibidualaren kasuan, berriz, erabiliena *zorua* izan da –esan bezala, honek bestea arau sozialen hausle bezala hautematea isladatzen du–. Identitate eskusibo espainiarrekoek identitate soziala azpimarratzerakoan *hiltzailea* etiketa erabili dute batez ere –zeinak taldea gizartean onartezinak eta oso negatiboak diren ezaugarrien jabe dela adierazten duen (Bar-Tal, 1990)– eta identitate indibidualaren kasuan *zorua*.

2.d.- Bestearen ebaluaketa: Bestearen ebaluaketari buruz, elkarrekintzak eragin esanguratsu orokorra izan duela beha daiteke (Pillais  $F_{(2,221)} = 3.69$ ;  $p = .000$ ).

Faktore bakarreko eraginari dagokionez, *deabruzkoa*, *espantsiozalea*, *argia*, *boterezalea* eta *fidagarria* izan ezik, beste guztietan aurkitzen dugu. Ikus daitekeen bezala, bi taldeek bestea negatiboago ebaluatzen dute identitate soziala azpimarratzen zaienean.




### 3. Taula

	TALDEKIDETZA			
	EUSKALDUNA		ESPAINIARRA	
	I.SOZ.	I.IND.	I.SOZ.	I.IND.
Agresiboa	7.64	6.51	8.4	6.29
Krudela	7.58	6.10	8.36	6.16
Prestua	3.00	4.25	3.12	3.95
Demokraziazalea	2.73	4.10	2.28	3.70
Deabruzkoa	6.1	5.24	4.68	5.16
Espantsiozalea	6.12	5.18	4.28	5.62
Adiskidetsua	2.81	4.18	2.88	3.75
Utzia	4.59	4.98	4.68	4.95
Langilea	3.78	5.33	3.72	5.66
Justua	2.14	3.42	2.52	3.04
Arriskutsua	7.12	5.53	7.88	3.66
Jatorra	2.20	3.97	2.36	4.37
Garbia	3.02	5.28	3.4	5.33
Abertzalea	4.66	5.59	3.48	5.33
Boterezalea	8.27	7.45	7.92	7.08
Adimentsua	5.12	5.42	5.32	5.33
Susmagarria	7.04	5.19	7.12	4.58
Traidorea	7.25	5.51	6.32	5.66
Fidagarria	1.93	3.25	2.6	2.45
Gerrazalea	6.4	4.78	7.84	5.04

Batezbestekoak adi begiratzen badi-tugu, ikusiko dugu identitate eskusibo espainiarrekoek gehien erabili dituzten etiketak agresibitatea adierazten duten *agresiboa* eta *krudela* izan diren bitartean, identitate eskusibo euskaldunekoek maila ezberdinetako harremanaren alde negatiboa adierazten duen *boterezalea* erabili dutela batez ere.

3.- *Aldagaien arteko harremana:* Azkenik, identitate soziala nabarmentzea eta hautemandako gatazkak bestearen ebaluaketan zuzeneko eragina zein zeharkakoa izango dutela dioen gure hipotesia egiaztatzeko, datuetan “Egitura Ekuazio Analisia” (EQS) delako analisia egin genuen. Anlisi honek hirugarren irudian ikus daitezkeen harremanak agertu zituen (Bentler Bonnet Fit Index = 0.96;  $X = 10.35$ ;  $p = 0.11$ ); hauek guk egindako predikzioen araberakoak izan ziren. Honela, alde batetik, identitate soziala nabarmentzeak eragin zuzena

du bai deslegitimizazioan, bai hautemandako balore-ezberdintasunean eta bai bestearen ebaluaketan ere. Bestalde, identitate soziala azpimarratzean, hautemandako gatazka areagotu egiten da, eta honek ere zuzeneko eragina zein zeharkakoa –deslegitimizazio eta hautemandako balore-ezberdintasunaren bitartez– du bestearen ebaluaketan.



### Ondorioak:

Lehenik eta behin, bizi dugun gizarte-gatazka suntsitzailearen ondorioz *gu*-aren eta *beste*a-ren arteko mugak areagotu egin direla azpimarratu nahi dugu; hori dela medio identitate gatazkatuak sortu dira, hau da, identifikazio-arlo ezberdinen artean gatazka bat suertatzen denean sortzen diren identitateak (identitate eskusibo euskalduna eta espainiarra hain zuzen ere).

Gure lehen hipotesiari dagokionez, buruturiko *Manova* analisisiei esker ikusi ahal izan dugu gizabanako vs. talde-identifikazio terminotan elkarrekintzatzeak bestearen pertzepzio eta ebaluaketetan eragina duela. Hain zuzen ere, identitate gatazkatuak taldekidetzak eta identitate sozialaren arteko elkarrekintzak hautemandako gatazka, eskusio morala –hautemandako balore-ezberdintasuna eta deslegitimizazioa– eta bestearen ebaluake-

ta negatiboa areagotu ditu, taldeki-detza soilak aldagai hauetan inongo eraginik izan ez duen bitartean.

Azkenik, egoera gatazkatsuetan identitate soziala nabarmentzeak identitate indibidualak martxan jartzen ez duen prozesu negatibo bati eragiten diola ikusi ahal izan dugu: lehenik eta behin, hautemandako gatazkaren

areagotzea ematen da, honen ondorioz eskusio morala areagotuz eta bestearen ebaluaketa ere negatiboago izatera pasatuz. Hori dela eta, esan dezakegu identitate soziala nabarmentzeak eragindako kategorizazioaren bitartez taldearteko gatazka-prozesuen areagotzea ematen dela; prozesu hauek bestearen ebaluaketan oso eragin negatiboa dute.

## Bibliografia

- Bar-Tal, (1990): "Causes and Consequences of Delegitimation: Models of Conflict and Ethnocentrism", *Journal of Social Issues*, 46 (1), 65-81.
- Bar-Tal eta beste (ed.), (1989): *Stereotyping and Prejudice: Changing Conceptions*, Springer-Verlag, Londres.
- Bar-Tal, Stroebe eta beste, (1988): *The Social Psychology of Intergroup Conflict*, Springer-Verlag, Berlin.
- Berkowitz, (1962): *Agression: a social psychological analysis*, McGraw Hill, New York.
- Blake, R. - Mouton, (1979): "Intergroup Solving in Organizations" in W. Austin and S. Worchel, *The Social Psychology of Intergroup Relations*, Brooks-Cole Pu.Co., Monterey.
- Bruner, J.S. - Pelmutter, H.V., (1957): "Compatriot and Foreigner: A Study of Impression Formation in 3 Countries", *Journal of Abnormal and Social Psychology*, 55, 253-260.
- Deutsch, E., (1986): "The Prevention of World War III: A Psychological Perspective Constructive and Destructive Process", *Political Psychology*, 4, 3-32.
- , (1990): "Psychological Roots of Moral Exclusion", *Journal of Social Issues*, 46, 1, 21-26.
- Deutsch M. - Shichman S., (1986): "Conflict: a Social Psychological Perspective" in Herman, M.E., *Political Psychology*, Jossey-Bass Publishers, Londres.
- Dion, K.L., (1975): "Women's reactions to discrimination from members of the same or opposite sex", *Journal of Research in Personality*, 9, 294-306.
- Dion, K.L. - Earn, B.M. (1975): "The Fenomenology of Being a Target of Prejudice", *Journal of Personality and Social Psychology*, 32, 944-950.
- Doise, W., (1976): *L'articulation psychosociologique et les relations entre Groupes*, De Boeck, Brussela.
- , (1986): "Las Relaciones entre Grupos", in S. Moscovici, *Psicología Social I*, Paidós, Bartzelona.
- Doise, W. - Weinberger, (1972-3): "Représentations masculines dan différents situations de rencontres mixtes", *Bulletin de Psychologie*, 26, 647-657.
- Forgas, J., (1981): *Social Cognition*, Academic Press, Londres.
- Kluckhohn, (1951): "Values and value orientations in the theory of action" in Parsons - Shils (edd.), *Toward a general theory of action*, Harvard University Press, Cambridge eta MA, 388-433.
- Mercade, F., (1989): "Las identidades colectivas. España y Cataluña", *Reis*, 48, 155-197.
- Opatow, (1990): "Moral Exclusion and Injustice: An Introduction", *Journal of Social Issues*, 46 (1), 1-20.

- Rayen, B., - Rubin, J., (1976): *Social Psychology*, Wiley and Sons, New York.
- Rokeach, M., (1968): *Beliefs, Attitudes and Values Jossey-Blass*, S. Francisco.
- , (1973): *The Nature of Human Values*, Free Press, New York.
- Schwartz, S.H. - Bilsky, W., (1987): "Toward a Universal Structure of Human Values", *Journal of Personality and Social Psychology*, 53 (3), 550-562.
- Schwartz, S.H. - Struch, N., (1989): "Intergroup Aggression: Its Predictors and Distinctness From In-Group Bias", *Journal of Personality and Social Psychology*, 56, 3.
- Sherif, M., (1966): *In Common Predicament: Social Psychology of Intergroup Conflict and Cooperation*, Houghton Mifflin, Boston.
- Sherif - Sherif, (1953): *Groups in harmony and tension*, Harper, New York.
- Tajfel, H., (1972): "La catégorization sociale" in Moscovici (ed.) *Introduction a la psychologie sociale*, Larousse, Paris, 1, 272-302.
- , (1978): *Differentiation between Social Groups; Studies in the Social Psychology of Intergroup Relations*, Academic Press, Londres.
- , (1981a): *Human Groups and social Categories*, Cambridge University Press, Cambridge.
- , (1981b): "Social Stereotypes and Social Groups", in Turner and Giles (eds.) *Intergroup Behaviour*, Blackwell-University of Chicago Press, Oxford-Chicago, 144-167.
- , (1982a): *Human Groups and Social Categories*, Academic Press, Londres.
- , (1982b): *Social Identity and Intergroup relations*, Cambridge University Press, Cambridge.
- , (1982c): "Social Psychology of Intergroup Relations", *Annual Review of Psychology*, 33, 1-39.
- , (1984): *The Social Dimension*, Cambridge University Press, Cambridge.
- Tajfel eta Turner, J.C., (1979): "An integrative Theory of Intergroup Conflict" in W. Austin eta S. Worchel, *The Social Psychology of Intergroup Relation*, Brooks Cole, Monterey.
- Tajfel eta Wilkes, (1963): "Classification and Qualitative Judgment", *British Journal of Psychology*, 54, 101-114.
- Turner, J.C., (1981): "Towards a Cognitive Definition of the Social Group", *Cahiers de Psychologie Cognitive*, 1, 93-118.
- , (1982): "Towards a cognitive redefinition of the social group" in Tajfel (ed.) *Social Identity and Intergroup Relations*, Cambridge University Press, Cambridge.
- , (1984): "Social identification and psychological group formation" in Tajfel (ed.) *The Social Dimension: European Developments in Social Psychology*, Cambridge University Press, Cambridge.
- , (1987): "The self-categorization and the self-concept: a social cognitive theory", in Turner et al. (eds.) *Rediscovering the social groups. A self-categorization theory*, Basil Blackwell, Oxford.
- Wilder, (1986): "Social Categorization: Implications for Creation and Reduction of Intergroup Bias" in Berkovitz (ed.) *Advances in Experimental Social Psychology*, (19), Academic Press, New York, 293-355.